

“Ez dok Hiru” Bikoteatroak aurkezten du

larru haizetara

Sexu kuadernoak





"Ez dok hiru" Bikoteatro Konpainia

Euskal antzerkian eskarmentu handi samar duten bi partaidek osatua:

Mikel Martinez eta Patxo Telleria.

Beste lan batzuetatik aparte, urteak daramatzate "bikote artistiko" bezala lanean, hala antzerkian:

"Marxkarada",

"Monstruo Sakratuak",

"Kaio Luma Zikina",

"Kontenedore baten Istorioak",

"Lezio Berri Bat Ostrukari Buruz",

"Euskara Sencilloaren Manifestoa" ;

nola telebistan: "Irrikitan".

Denborarekin, halako estilo bat sortu dute ia oharkabeen, iturri askotatik edaten duena (Marx anaiak, Ionesko, Miura...) baina bere kaligrafia berezkoa duena: aktore bion elkarrizketetan oinarritzen da, berbaldi motz eta pikatuak, azkarrak, eroak.

Bikoteatro honen lanaren ezaugarriak, beraz, hauexek lirateke:

- Aktore-pertsonaia biren elkarrizketetan oinarritutako hitzezko umorea.
- Euskara hutsez sortua eta eskainia.
- Edozein txokotara heldu ahal izateko moduko formato txiki-arinean prestatua.
- Gertuko gizajendea da beti mintzagaia (euskara, euskal gizartea, kultura...).

Ezaugarri hauek guztiak dauzka konpainia honen azken lanak ere:

LARRU HAIZETARA

LARRU HAIZETARA

(sexu-terapia kolektiboa)

Gaia: gu geu (euskaldunok, zentzu zabalean)
Helburua: barre egitea (geure buruaz, batez ere)
Aitzakia: geure bizitza sexual... tristea?
Protagonista: hizkuntza (euskara, kasu honetan)
Estiloa: zoroa, nahiko zoroa.

Nori zuzendua: euskara, bizitza sexual eta barre egiteko gogoia duen edonori.
"Aktua" non: edonon (tamainuak ez dio axola).

SEXUA...

LARRU HAIZETARA sexu-terapia kolektibo bat da.

Sigmund Freud-ek esan zuen "euskal-sexoa" sintagma kontraesanguratsua zela bere terminoetan, "borobil-karratua" edo "funtzionari-kementsua" diren bezela. Guk, "Ez dok Hiru" Bikoteatro konpainiak, arazoa aztertu nahi izan dugu ikuspuntu erabat zientifikotik.

Ez gara lehenak, hala ere. Arquímedes-ek ezarria zuen bere garaian oraindik indarrean dagoen lege fisiko bat, erderaz ezagunagoa egiten zaiguna: "La ley de vascos comunicantes: Euskaldunak, infinitoraino iritsi arren sekula gurutzatzen ez diren linea paraleloak dira"

Mendetako madarikazio horren kontra egiteko sortua da LARRU HAIZETARA. Ikuskizun honek "lehen-gero" nabarmen bat markatuko du euskaldunen sexu jarreraren kontuan.



LARRU HAIZETARA

barre-terapeutikoa da, dibertigarria, zorrotza, eta modernoa, baina batez ere BEHARREZKOA.

Izan ere, euskaldunak oso atzeratuta gaude sexu kontuetan. Joan zaitetz Londresera, zer daramate idatzita neskamutilek alkondaretan? "I love sex". Edo joan zaitetz Parisera : "Je suis un machine sexuel". Joan zaitetz Sevillara: "Nasío pa ligar" Joan zaitetz Cadizera: "Nasío pa bacilar" Joan zaitetz Azpeitiara: "Nazio... eztabaidagunea"

Gainera, onar dezagun euskera hizkuntza maitagarria izan arren nazioarteko kontestuan pisu gutxi duela (oraindik). Edonon esan daiteke "Voulez vous coucher avec moi", esatebaterako, eta denek ulertuko dizute. Gaztelania bera ere oso internazionala da. Esan munduko edozein bazterretan "Aserejé ja deje ejebe to the jerebe say nouva majabi on the boogue and the buguiribi" eta tira, ligatu agian ez duzu ligatuko, baina zutaz gogoratuko dira. Baina joan zaitez atzerrira, esaiozu norbaiti: "Nik zu zaitut maiteago arraitxoak ura baino", eta pub-etik botako zaituzte, kasurik onenean. Ez, euskerak ez da oraindik bere goien gradora igo. Eta guk ere Etxeparek zioen bezala, aldarrikatu nahi dugu : "Euskera, jalgi hadi plazerrera "

Bukatzeko, eta barre-terapia honen garrantzia azkenekoz azpimarratu nahian, gogora dezagun Camaron kantari handiak (eta euskaltzale amorratua, datu hau jende gutxik dakien arren) Idiazabalgo sagardotegi batean inprobisatu zuen bertso ederra, sebillanaren doinuaz:



"Bizitzan bi gauzak digute zinez inportatzen
Trakatra traka traka trakatra trakatra.
Besteak bastertzen
goazen ba zehazten:
Bata sexoa da, bestea... ez dut gogoratzen.
Trakatra traka traka trakatra trakatra."

... eta EUSKERA

Ikuskizun (terapia) hau euskeraz idatzita dagoela esaten badugu, ez dugu egiaren parte bat baizik esan. Euskera ez da terapia (ikusizun) honetan mezua emateko bitarteko bat.

Euskera mezuaren parte bat da, alegia, euskera ez da bakarrik edukitzailea, edukia ere bada. Euskerak (euskeraren gramatika eta fonetikak) eskeintzen dituen baliabide, sorpresa, hitz joku eta abarrei zuku guztia atera nahi diegu.

On dagizuela (dagigula) guztioi.

LARRU HAIZETARA

(errudunak eta ezinbesteko kolaboratzaileak)

Egilea: Patxo Telleria

Aktoreak: Patxo Telleria

Mikel Martinez

Zuzendaria: Aitor Mazo

Zuzendari laguntzailea: Itxaso Garmendia

Eskenografia: Aitor Mazo

Musika: Bixente Martinez

Jantziak: Nati Ortiz de Zarate

Diseinu grafikoa: Di-da

Mila esker: Jokin Oregi-ri

Banatzailea:

Teatrorat (Maite Arrese)

943465381-690630748

<http://www.teatrorat.com>

Produkzioa:

"Ez dok hiru" Bikoteatro Konpainia

<http://www.euskalnet.net/mimar/biko/>



LARRU HAIZETARA

(gazkileen antezedenteak)

Mikel Martinez
(perfila)



Aktore enblematiko honek, antzerkigintzan hasi baino lehen, modelo lana egin zuen Picasso-rentzat. Honela eman zitzaion hasiera kubismo-ari.

1982.ean Pinocho-ren papera egin zuen Maria Gerrero antzokian, Gepetoren atsekaberako. 1983.ean Cirano de Bergerac antzeztu zuen Amparo Rivellesekin, eta Amparo Rivelles bizirik irten zen hortik. 1985.tik 1989.ra Teatro Realean egon zen, arropazaindegian,

sudur makoan abriguak eskegiten, erabateko arrakastarekin, hala kritika nola publikoarena.

1992.-ean Egiptoko gobernuak "Esfinge"-aren sudurra lapurtu izana leporatu zion. "Karbono 14" frogak bere errugabetasuna erakutsi zuen. Artistikoki telebistan jo zuen gailurra "Kleenex"-en anuntzio ospetsuarekin. Kritikoen iritziz, bere itzelezko pituitaria ez da sekula izan arazo bat antzezteko orduan. Arazoa bere talentorik eza da.

Patxo Telleria
(currim-lingus)

Euskal aktoreen eredugarri, EGBko lehenengo mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako antzezlanean. EGBko bigarren mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako ikuskizunean. EGBko hirugarren mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako ikuskizunean. EGBko laugarren mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako ikuskizunean. EGBko bostgarren mailan ez zen arbolik egon kurtso bukaerako ikuskizunean, eta horrela bukatu zituen bere ikasketak.



Atzera pausu hau kolpe latza izan zen, baina handik urte batzuetara Madrilen profesional gisa debutatu zuen "Eloisa está debajo de un almendro" antzezlanean, almendronearen paperean. Geroko lanak dira: "El Jardín de los Cerezos", "Gernikako Arbola" "Alamo-ko bataila", "Urkatuaren arbola"...

Bere antzezpenei esker, 1991.ean, Adolfo Marsillach-ek dirusari bat eskeini zuen hil ala bizirik harrapatuko zuenari. Geroztik Bilboko parkean bizi da, "magnolioz" kamuflaturik.